Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Mariaxun Villar Lizarazu*

*Oñati, Gipuzkoa (1948)*



Aurkibidea

# Biografia



Zubillagako Arretxe Haundi baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Legazpikoa. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Sara eta Mila Martinez de Zuazo eta Eli Igarzabalekin batera. Mariaxunek ez zuen hitanoa gurasoengandik jaso. Auzoko lagunekin hasi zen hika erabiltzen. Elirekin batera Zubillagari buruzko liburua idatzi du Mariaxunek: "Antxinako Zubillagari begirada bat"

# Zintak

### ONA-250

- **Proiektua**: Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2019-02-12
- **Iraupena**: 77 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

### ONA-251

- **Proiektua**: Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2019-02-12
- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

# Pasarteak

## 1. Mariaxunek hika ez du etxean jaso

- **Erref**: ONA-250/018
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:23:27. **Bukatu**: 00:25:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Gurasoek ez diote inoiz hika egin, ezta Mariaxunek anaiei ere. Amak Legazpiko euskalkian egiten zien, eta bere anai-arrebekin hika egiten zuen,

baita aitak bere anai-arrebekin ere. Mariaxunen anaiek euren artean ez dute hika egiten, baina bai Mariaxunen senarrarekin.</p>

## 2. Agustindarrek bideratutako mugimendua

- **Erref**: ONA-250/019
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:25:03. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Hamasei bat urte zituztenean, agustindarrek bultzatuta, kulturaren eta euskararen inguruan taldeak sortzen hasi ziren. Honekin batera, Mariaxunek hika ikasi zuen.</p>

## 3. Ezkondu aurretik hika, ondoren zuka

- **Erref**: ONA-250/022
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:28:24. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Ohikoena izan da nobiotan hika egin arren, ezkondutakoan zukara pasatzea. Milak eta Elik senarrarekin hika egiten jarraitzen dute ordea.</p>

## 4. Zubillagan hika asko egiten al zen?

- **Erref**: ONA-250/024
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:31:17. **Bukatu**: 00:33:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Eliren izebek beti hika egiten zuten lagunekin eta anai-arrebekin. Auzoan hika egitea oso arrunta zen, zabaldurik zegoen. Transmisio etena Eliren belaunaldiaren ondoren egon da (65 urtetik beherakoen artean).</p>

## 5. Bizitza auzoan, eskola kalean

- **Erref**: ONA-250/025

- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:33:43. **Bukatu**: 00:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Belaunaldi batetik bestera hikaren erabilera asko galdu da. Beharbada, eskolara kalera jaitsi izanagatik da, edo gazteagoek erdaraz gehiago egiten dutelako. Hika egiteko modua ere aldatu da.</p>

## 6. Vatikanoko II. elizbatzarra eta Oñatiko kultur mugimendua

- **Erref**: ONA-250/027
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:34:54. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena**:
Vatikanoko II. elizbatzarra ospatzeak seminarioetan eragin handia izan zuen. Ondorioz, agustindarrek mugimendu kulturala martxan jarri zuten Oñatin. Auzoetako mezetara joaten hasi ziren, abesti berriak sortzen, heziketa berritzen eta abar. Auzoetan ekintza asko antolatu ziren, liburutegiak sortu... Eli eta Mila JOC mugimenduan sartu ziren.

## 7. Euskaraz alfabetatzen hasi

- **Erref**: ONA-250/028
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:38:05. **Bukatu**: 00:40:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen historia

**Laburpena**:
<p>Elizaren babesean, Oñatin kultur mugimendua sortzen hasi zen. Euskara irakasten hasi ziren Oñatibiaren 'Metodo radiofonico' bidez, jendea euskaraz alfabetatzeko balio izan zuen.</p>

## 8. Auzotarra eta euskalduna izateagatik iraindu

- **Erref**: ONA-250/030
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:40:12. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Gizakumeen artean euskaraz egiten zuten, baina erdaraz zuzentzen zitzaien emakumeei. Euskaraz egiteagatik konplexu asko zituzten baserritarrek, izan ere, askotan iraintzen zituzten emakume baserritarrak kalera joaten zirenean. Parrokiara joatean ere, auzoetako umeak atzean esertzen ziren. Maristetako ikasleak eta eskola publikokoak ere ez ziren modu berean tratatzen.

## 9. "Que pena que no seas castellana"

- **Erref**: ONA-250/031
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:45:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena**:
Elik ondo idazten zuen, baina euskalduna izateagatik baldartzat hartzen zuen maistrak, euskara atzerakoia balitz bezala.

## 10. Elizara buruko-zapirik gabe joatea erabaki zutenekoa

- **Erref**: ONA-250/033
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:45:36. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

**Laburpena**:
Auzotarra izateagatik sufritutakoak. Elizan atzean esertzen ziren, eta uniformerik ez zuten eskola publikora joaten zirelako. Auzo mailan elizara burukorik gabe joatea erabaki zuten.

## 11. Hika, burla egiteko arrazoi?

- **Erref**: ONA-250/034
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:47:45. **Bukatu**: 00:49:22

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Baserritarra eta euskalduna izateaz gain, hika egitea burlarako eta bazterkeriarako arrazoi bat gehiago zen batzuentzat. Errespetu faltzatzat jotzen zuten zenbaitek. Kaleko neska gazteek, orokorrean, erdaraz egiten zuten.</p>

## 12. Auzotik kalera, penaz

- **Erref**: ONA-250/036
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:51:11. **Bukatu**: 00:53:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Martinez de Zuazo ahizpak kalera jaitsi ziren bizitzera, eta penaz bizi izan zuen hori Elik. Auzotarrek oso harreman estua izaten zuten, eta auzotik kalera jaistea urrutira bizitzera joatearen modukoa zen. Oñatiko hitanoa.</p>

## 13. Bederatzietan berbernatik etxera

- **Erref**: ONA-250/037
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:53:29. **Bukatu**: 00:54:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Zubillagatik kalerko berbenara jaisten ziren dantza egitera. Bederatziak eta bostean izaten zuten azken autobusa auzora itzultzeko. Ahalik eta gehien luzatzen zuten dantza, eta gero korrika joan behar izaten zuten autobusa hartzera, etxera berandu ez iristeko. Oñatiko hitanoa.</p>

## 14. Zergatik galdu da hika?

- **Erref**: ONA-250/039
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:55:55. **Bukatu**: 00:58:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Eliren iritziz, hika desprestigiatuta eta baztertuta egon da. Handinahiak zituztenek hika alderatu egin zuten. Garai batean oso arrunta zen denen artean hika egitea, baina hikak fama txarra hartu zuenean, erabiltzeari utzi zitzaion, askotan, modu inkontzientean.</p>

## 15. Emakumeei hika gizonen moduan egiten diete askok

- **Erref**: ONA-250/041
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:58:24. **Bukatu**: 00:59:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Emakumeen artean hika egiteko ohitura asko galdu da. Gizakumeen artean, aldiz, askok kalean ikasi dute, baina gizonen forma bakarrik. Ondorioz, emakumeei gaizki egiten diete hika.</p>

## 16. Kanpotar asko Zubillagan

- **Erref**: ONA-250/042
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:59:21. **Bukatu**: 01:02:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Zubillagara kanpoko jende asko joan zen bizitzera denbora gutxian, nafarrak, kantabriarrak, andaluziarrak... Oso auzo industriala izan da beti. Etorkinen seme-alaba batzuek euskaraz ikasi zuten.

## 17. Gizonen sozializazioa, desberdina

- **Erref**: ONA-250/044
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 01:03:58. **Bukatu**: 01:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Elkarteek, tabernek... leku handia zuten gizonen sozializazioan. Bertan elkartzen ziren ia egunero, eta beharbada, hika gordetzen lagundu du honek. Emakumeak, ordea, ez ziren ia kalean egoten, eta gutxiago tabernetan. Honen

ondorioz, tabernetan egoteko ohitura horrek jarraitu egin du, eta gizonen arteko harreman-sarea belaunaldiz-belaunaldi mantendu egin da. Belaunaldi batetik aurrera,auzoko eskola itxi, eta kalera jaisten ziren eskolara. Oñatiko hitanoa.</p>

## 18. Zein baldintza behar dira hika egiteko?

- **Erref**: ONA-250/046
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 01:08:01. **Bukatu**: 01:10:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Hika egitearen atzean zenbait baldintza daude, ezin da edozeinekin hika egin. Haien artean: gertutasuna, konfiantza, ohitura... Oñatiko hitanoa.</p>

## 19. Animaliekin hika ala zuka?

- **Erref**: ONA-250/047
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:10:24. **Bukatu**: 01:11:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Sarak txakurrari zuka egiten dio, baina senarrak hika. Mariaxunek zuka katuari. Elik zuka egiten zuen lehen baserriko animaliekin. Euren buruarekin, ordea, hika egiten dute denek.</p>

## 20. Zer ematen dizue hikak?

- **Erref**: ONA-250/049
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 01:12:56. **Bukatu**: 01:15:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Satisfazioa, normaltasuna, konplizidadea, konfiantza, gertutasuna...</p>

## 21. Lehenengo labadorak

- **Erref**: ONA-251/002
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:01:54. **Bukatu**: 00:04:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena**:
Labadora asmakuntza handia dela diote. Hasiera batean, asmatutako labadorak gaboia botatzeko ziren, eta gero norberak atera eta lehortu egiten zituen. Arropa bakoitzak bere erara garbitzen zuen. Oñatiko hitanoa.

## 22. Umetan, neska-mutilak batera?

- **Erref**: ONA-251/004
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:05:58. **Bukatu**: 00:09:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Neskak sakaponetan, salto-saltoka, pelotan, bole-boleka... Mutilekin batera ibiltzen ziren askotan eskolan. Futbolerako lekurik ez zegoenez, beste jolas batzuk biltzen zituzten. Oñatiko hitanoa.</p>

## 23. Berorika erabiltzeko eskatu

- **Erref**: ONA-251/005
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:10:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

**Laburpena**:
<p>Elik berorika erabili behar izateari buruzko anekdota bat kontatzen du. Oñatiko hitanoa.</p>

## 24. Neskek laboreak, mutilek marrazkia

- **Erref**: ONA-251/007
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:13:22. **Bukatu**: 00:16:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena**:
<p>Madalenako eskolako kideak eta lagunak. Adin ezbedineko ikasleak nahasturik egoten ziren. Atean egun batean neskek laboreak izaten zituzten, eta mutilek marrazkiak egiten zituzten. Oñatiko hitanoa.</p>

## 25. Aldaketak bizi izan dituen belaunaldia

- **Erref**: ONA-251/009
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:18:08. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Garai bateko ohituren galera. Eten handiagoa egon da Eliren belaunalditik hurrengoetara, aurrekoetan baino: autoak, aparatuak... Gaztetan bizitakoa eta helduek kontatutakoa antzekoa izan da euren kasuan, gaur ordea ez.

## 26. Jatekoa kontserbatzeko trikimailuak

- **Erref**: ONA-251/010
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Jateko ohiturak asko aldatu dira garai batetik hona. Ezkontzetan, adibidez, oilaskoa jaten zen lehen. Garia ereitea. Janaria ondo mantentzeko egiten zituztenak. Oñatiko hitanoa.</p>

## 27. Abadeak Zubillagara gustura joaten ziren

- **Erref**: ONA-251/012
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:23:37. **Bukatu**: 00:25:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Elizaren indarra. Astean behin joaten zen apaiza Zubillagara meza ematera. "Eibar txiki" esaten zioten Zubillagari, jende askok kale egiten baitzuen mezan. Oñatiko hitanoa.</p>

## 28. Don Leandro eta Don Benigno apaizak

- **Erref**: ONA-251/014
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:27:52. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
<p>Don Benigno oso apaiz irekia zen, Don Leandro ere oso apaiz ona omen zen. Baraualdia egin beharra. Oñatiko hitanoa.</p>

## 29. Emakumeak eta galtzak

- **Erref**: ONA-251/015
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:30:22. **Bukatu**: 00:33:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
<p>Elik hogei bat urterekin erosi zituen galtzak lehen aldiz, lanerako behar zituen eta. Iratan ibiltzeko galtzak erabiltzen hasi zen, zauriz betetzen baitzen bestela. Oñatiko hitanoa.</p>

## 30. Tabernako komunera ezin joan

- **Erref**: ONA-251/017
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:08. **Bukatu**: 00:37:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Neskak ez ziren tabernan sartzen, eta mutilekin sartu behar zuten tabernan komuna erabili ahal izateko. Mariaxun eta lagunak zinera joaten ziren arratsetan, gero kafetegira sartzen hasi ziren.

## 31. Hotza pasatzen zuten neskek kalean

- **Erref**: ONA-251/018
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:37:48. **Bukatu**: 00:39:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
<p>Urtean hirutan egoten zen berbena herrian. Neguan kalean gora eta behera egoten ziren neskak, eta hotz handia pasatzen zuten, ezin baitziren tabernara sartu. Umetz kafetegia irekitzea asko eskertu zuten. Oñatiko hitanoa.</p>

## 32. Josten ikasi behar

- **Erref**: ONA-251/020
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:39:55. **Bukatu**: 00:43:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena**:
<p>Etxeko lanez gain, josten ere ikasi behar izaten zuten neskek. Horretarako, laboreetara joaten ziren. Eliri maistrak beka bat eskatzeko gomendatu zion, eskatzera joan eta orduantxe konturatu zen Eli 'pobrea' zela. Josten ikastea oso beharrezkoa zen, arropa adabakiz beterik eukitzen baitzuten. Oñatiko hitanoa.</p>

## 33. Lana uzteagatik dirua eman

- **Erref**: ONA-251/022
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:46:32. **Bukatu**: 00:48:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
<p>Ezkondutakoan emakumeak lana uzteagatik ordaindu egiten zen. Frankismo garaian derrigorrezkoa zen hori. Penaz utzi zuen lana Mariaxunek. Oñatiko hitanoa.</p>

## 34. Gustuko mutila etorriko zain

- **Erref**: ONA-251/024
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:48:58. **Bukatu**: 00:52:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Dantzara joaten zirenean, neskek neskekin egiten zuten lana, baina beti

ere gustuko mutila non zen jakinda, dantzan gonbidatuko zituzten zain. Gero, dantzalekua ireki zuten, eta bertara joaten ziren dantzara. Gustuko mutilekin bakarrik dantza egitea abentura hutsa zen. Oñatiko hitanoa.</p>

## 35. Auzoko mutilen lagun, kaleko mutilekin dantzan

- **Erref**: ONA-251/025
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:52:23. **Bukatu**: 00:54:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Auzoko mutilekin batera askotan egoten zirenez, lagunarteko harremana zuten, ez zuten haiekin dantzarik egiten igandetan. Kalekoekin, ordea, bai. Oñatiko hitanoa.</p>

## 36. Binaka dantza egiteko eskatzera

- **Erref**: ONA-251/026
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:54:21. **Bukatu**: 00:57:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
<p>Binaka joaten ziren mutilak neskengana dantzan egiteko eskatzera. Mutilak ezagunak zirenean, erraz jakiten zuten zein zen laguntzera zihoana, eta zein dantzan eskatzera. Baina, beste batzuetan, mutil biak ezezagunak zirenez, ez zuten jakiten zein zen interesa zuena eta zein laguntzen ari zitzaiona. Oñatiko hitanoa.</p>

## 37. Edaria eta tabakoa gizonen kontua

- **Erref**: ONA-251/028
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:57:21. **Bukatu**: 01:00:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

**Laburpena**:
<p>Gauez berandu arte gelditzeko garaian gizonek askatasun handiagoa zuten emakumeek baino. Azken trena hartzen zuten etxera joateko.

Emakumeek parranda ez zuten modu berean bizitzen, ez baitzuten edaten, ezta erretzen ere. Ondorengo belaunaldietan hori aldatu egin zen. Oñatiko hitanoa.</p>

## 38. Antisorgailurik ez zuten ezagutzen

- **Erref**: ONA-251/031
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:04:09. **Bukatu**: 01:06:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Ezkondu aurretik sexu-harremanak izateari beldur handia zitzaion, ezkondu aurretik haurdun gelditzea oso gogorra izaten zen, bai emakumearentzat eta baita familiarentzat ere. Bestetik, ordea, antisorgailurik ez zuten ezagutzen, eta ohikoa zen emakumea haurdun zegoela ezkontzea.

## 39. Geroz eta familia txikiagoak

- **Erref**: ONA-251/033
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 01:06:54. **Bukatu**: 01:10:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
<p>Ume askoko familiak ziren ohikoenak, batez ere nagusiagoen kasuan. Mariaxunen amak esan zion Arantzazun fraide bat zegoela, sexu-harremanak noiz izan zitezkeen eta noiz ez azaltzen zuena (haurdun ez gelditzeko).</p>

## 40. "Etxean neskame sentitu gara"

- **Erref**: ONA-251/035
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 01:13:27. **Bukatu**: 01:16:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
<p>Anaiak zerbait behar izanez gero, arrebak beti lagundu egin behar zion. Emakumeak lana etxeane ta etxetik kanpo egin behar izate hori apurtu nahi izan dute Mariaxunek, Elik eta Milak. Oñatiko hitanoa.</p>

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com